

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremana nagusiki digitala izango da, telefonoa, email-a, web gunea, sare sozialak... erabiliz. Aurrez aurre komunikatzeko aukera ere izango dugu. Edozein harpidetza/eskaintza egiteko, web orriaren bidez, telefonoz edo gure sukurtsalean egin ahalko da.

Edozein laguntza-kontsultarako, hainbat metodo izango ditugu; alde batetik, laguntza pertsonala eta laguntza pertsonal eskusiboa, bi kasuetan bezeroak enpresaren ordezkariekin komunikatuko dira, baina bigarren kasuan ordezkari espezifikoa bat bezero jakin batez arduratuko da.

Web gunean, izapideak egiteko izan arren, beste erabiltzaile batzuen balorazioak ikusi ahal izango dituzte, autozerbitzua izeneko tresna bat ere izango dugu, bezeroei edozein izapide egiten laguntzeko. Gainera, beste bezero batzuen ohiko galderak ere agertuko dira.